

MATERIALISMO HISTERIKOA

Gabonetako argiak



UXUE APAOLAZA LARREA

Lagun batek txio bat bidali zidan, txantxa tonuan, bazkalondoren batean edukitako gure eztabaidatxo baten jarraipena zirudielako, eta txiolariak nik erabilitakoen oso antzeko argudioak zerabiltzalako. Txioak hari bat zuen azpian, eta, tira, ezin osorik jarri, baina besteak beste, hauxe dio: “Urtero dago Gabonetako argien kontura kritika egiten duen eragileren bat”, eta “doakoak diren masa ikuskizun bakarretakoak dira”. Karla Pisanorenak dira hitzak. Pisanok horrela amaitzen du: “Den-dena nahi dugu: gure etxeak berotuko dituen argindarra zein arte espresio bilakatuko dena”. Nik ez nioke arte esango, bai entretenimendu, bai aringarri... baina bai, dena nahi dugu, dena dagokigu.

Gastu batzuk mespretxatzea, igerileku irekiak kasu, ura falta denean igerileku publiko guztietakoak kasu, klase ertaineko *snober* kontua izaten da, Hernanin, kale bat oinezkotu eta egoteko zurezko banku eta mahaiz bete zenean barre egin zuten listoena. Batzuen etxea, halabeharrez, kalean dago: ez kontzertuetan, ez zineman, ez Pirinioetara txangoetan. Askoz horteraoak gara.

Egia da, kapitalismoak dena bilakatzen du kontsumorako amu, argiak zein kaleen oinezkotzeak. Baina begiratu ondo, kontsumitzaileen artean daude kalea zukutzeko pauso geldoan doazen familiak, haurren parkeetan aterpetzen diren nerabeak, Hernanin hainbeste grazia egin zuten banku eta mahaietan aspertzen direnak. Arte espresioak egonaldi horietan sortuko dituzte, goxo aspertzen diren unean, argiei begira. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



Turistikazioa

Erabilera turistikoko etxebizitzaren (ETE) ugaltzea “geldiarazteko erreminta administratiboa” proposatu du Gasteizko Alde Zaharreko Gasteiz Txiki auzokideen elkarteak: atariko bizilagunen bileran ETErik ez dela onartzen erabaki, erabakia estatutuetan jaso, eta jabetza-erregistroan aurkeztea.

Etxebizitza

25 eta 29 urte bitartean emantzipatzeko dirulaguntzak ematea aurreikusten du Eusko Jaurlaritzak. “Gazteen Emantzipazio Laguntzeko 2030 Euskal Estrategia” aurkeztu du, emantzipazio adina 28ra jaisteko eta soldatak 2010ko kopuruetara iristeko helburuz.

Euskara

EAEko Lanbide Heziketako irakasle teknikoaren kontsolidaziorako meritulehiaketan, lanpostuen erdia euskara eskakizunik gabe atera du Eusko Jaurlaritzak, eta helegitea jarri du LAB sindikatuak, lanpostu denetan euskara eskatu dadin. “Irakasle euskaldunen bazterketa” salatu du sindikatuak.